



Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 20an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

11.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñati Udaleko 2022ko kontu orokorra onartzea, kontuen batzorde berezian diktaminatua 2023ko maiatzaren 30ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñati Udaleko 2022ko kontu orokorra onartzea.

2023ko maiatzaren 30ean egindako kontuen batzorde berezian, aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez:

*"2022ko Kontu Orokorrak
Kontu hartzaileak bere Memoriaren berri ematen du:..."*

Batzordekideei gogorarazten zaie, Kontu Orokor hauek, Batzorde Berezi honen irizpenarekin, jendaurrean ipiniko direla 15 egunetako epea eta ondoren Osoko Bilkurak dagokion akordioa hartuko duela.

Kontuen Batzorde Bereziak, aho batez, 2022ko Oñatiko Udalaren sektore publikoaren Kontu Orokorren aldeko txostena luzatzen du."

Oñatiko Udaleko 2022ko Kontu Orokorrak eta Kontuen batzorde bereziaren irizpen txostena jendaurrean jarri ziren 15 eguneko epean, bitarte horretan interesatuek erreklamazioak, zein oharrak aurkez ahal ditzaten. Hau guztia Gipuzkoako Tokiko Erakunde Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoarekin bat. Iragarkia 109. zenbakidun duen 2023ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurrean egon den epean, ez dira inolako erreklamaziorik jaso.

Gaia aztertutik, eta kontuen batzorde bereziaren aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa. - Onartzea Oñatiko Udaleko 2022ko kontu orokorrak.

Bigarrena. - Behar bezala onartutako kontu orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

Gaia aztertuta, eta kontuen batzorde bereziaren irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakunde Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Egiatzapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU242600ef-d532-47af-9fb0-f92a7d722488**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoen <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>